27ko belaunaldiko poetarik garrantzitsuenetako bat izan zen. Literatur kritikari eta poeta aritu zen gerraren aurreko urteetan, eta ospe handia lortu zuen. Bera da **Gerardo Diegoren Antología lanean agertzen diren bi emakumeetako bat**.

Haren obra poetikoak etengabeko bilakaera izan zuen. Lehen etapan, **amodiozko lirika erabiltzen du**, eta tentsioan dago poesia puruaren eta abangoardismoaren artean. **Mexikon erbesteratuta egon bitartean, haren poesiak tonu helduagoa hartu zuen, zenbaitetan mistikoa eta transzendentea, baina betiere karga emozional handikoa**. Haren lanean modernitatearen irudiak, amodioa, askatasun-nahia eta hoztasun intelektuala gainditzen duen sentsibilitatea uztartzen dira, intentsitate liriko handia lortzeraino.

ITXARONALDIA

Amodioa! Oraindik ez zara iritsi eta jada hartu nauzu guztia
nire gorputzari lotua arrosondo zauritua bazina bezala.
Arteztu nazazu zuk! Nire sustrai ilunak
xurgatu dezala, blaitu arte, zuku askatzailea.

Amodioa, isiltasun ernea, itxaronaldi korapilatua
musu izatera jostatzen diren mamu zurbilez egina,
euskarririk gabeko gozotasuna, lurpeko taupada
ametsik ezkutuenaren azken tolesturan ehortzia.

Amodioa, lainoa eta izarra, paradisu sekretua
laztan berarekin irabazten eta galtzen dena:
eman nire ibilera noragabeari zure atari izenik gabeak.
Zutaz jantziko da nire biluztasun ukigabea!
Ukatzen badidazu zure estasia, ez ukatu zauria.
Tori gozotasun asaldagarria, gezi kiskalgarriaren trukean.
Erakutsi zure minik sakonenaren loria
eta kantatuko dut, hil bitartean, nire kantika kontaezina.

Agian ez zara iritsiko inoiz. Nire espiritu nekaezina
beilan dago zure zeinu misteriotsuaren zain.
Gaueko zein brisatan loratzen ari dira zure ezpainak?
Zein eguzki-zenitetan gantzutuko nau zure ukenduak?

(*Cántico Inútil*, 1936)



ERNESTINA DE CHAMPOURCÍN